



# PMI KONPOSATUA

## Euroguneak ekonomia suspertzeko bidean urratsak ematen jarraitzen du


Maiatzean, euroaren eremuko PMI indize konposatuak bilakaera hobetu zuen berriro, eta 52,3an kokatu zen, ekonomiaren hedapen eremuaren barruan eta azken hamabi hilabeteetako mailarik gorenean. Zerbitzuen bilakaeraren eta manufakturen bilakaeraren arteko portaera diferentzial garrantzitsua dago oraindik ere. Lehenengoek (53,3) dinamismo handiko abagunea erakusten dute, eskaera berriak iristen direlako

eta horrek enplegua sortzea ahalbidetzen du. Beste aldetik, manufakturak (49,3) ez dira gai izan berriro aktibatzeke, baina maiatzeko datua egonkortasunetik oso gertu dago eta azken hamalau hilabeteetako onena da. Horren guztia- ren ondorioz, enpresen konfiantza bi urte baino gehiagoko baliorik altuenean kokatu da. Azkenik, kostuak moteldu egin dira, baina altuak izaten jarraitzen dute.


### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2024KO MAIATZA


52,3




### MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



## PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




## PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdeka, azpimarratzekoa da Alemanian izandako susperraldia (52,2), zerbitzuen indarra nabarmentzen hasi baita (53,9), nahiz eta herrialdeko enpresak (48,9) oraindik nolabaiteko ahulezia erakusten duten. Frantziak (49,1), aldiz, atzerapausoa eman du eta ekonomiaren uzkurdura eremura itzuli da, zerbitzuek okerrera egin dutelako, enpresak jaitziera leundu duten arren.

Eurogunetik kanpo, nabarmentzekoa da AEBek hilabete horretan lortutako bultzada handia (54,4), enpresak eta, bereziki, zerbitzuek bilakaera ona izan baitute. Erresuma Batuak (52,8) eta Japoniak (52,4) ere irudi positiboa eskaini dute.


## PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



## PMI KONPOSATUA. AEB



## PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit.